6008

EBAZPENA, 2008ko urriaren 6koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, 1065/08-2 Ohiko prozedurari dagokion Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan interesa izan lezaketenak deitzen dituena. Ebazpen hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko ekainaren 10eko Ebazpenaren kontra jarritakoa da. Azken Ebazpen honek Donostia-San Sebastiángo Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko Prestakuntza ikastaroa egitetik kanpo utziz zigortzen du errekurtsogilea, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegian aurreikusitako hutsegite larria egiteagatik.

Goian azaldutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa (1065/08-2 zenbakiko Ohiko Prozedura) aurkeztu da eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietako Epaitegiak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatuta, eta Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2008ko urriaren 6a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

6008

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo perteneciente al procedimiento ordinario 1065/08-2 que se sigue en la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, contra la Resolución de 10 de junio de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se sanciona al recurrente con la pérdida del Curso de Formación para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Donostia-San Sebastián, por la comisión de una falta grave prevista en el Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (Procedimiento Ordinario 1065/08-2) identificado en el encabezamiento, y habiéndose solicitado por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 6 de octubre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.